

AURREKARIAK

Duela bederatzi urtetik, Kutxa Fundazioa, Jubikutxa-Kutxako enplegatu erretiratuen, aurretik erretiratuen eta pentsiodunen elkarte, eta Denon Artean Denetik (DAD)-Kutxako enplegatuen elkarte, lankidetzan ari dira herrialde behartsuetan garapen eta lankidetzako proiektuetarako laguntzak kudeatzen.

Duela 25 urte baino gehiago, pobreziaaren aurka borrokatzeko % 0,7ko ekarpena eskatzen zuten gizarte-mugimenduekiko sentikor zirelarik, lehengo Kutxako enplegatuek, DAD elkartearen barruan, orduan “Hirugarren Munduari Laguntzeko Batzordea” deiturikoa (aurrerantzean **Lankidetza eta Garapenerako Batzordea**) sortu zuten. Historikoki, lorturiko funtsen bidez garapenerako lankidetza-proiektu asko bultzatzeko aukera egon da.

Laguntza-deialdi honekin, **Kutxa Fundazioak, Jubikutxak eta DADek Gipuzkoako (edo egoitza lurralde honetan duten) hirugarren sektore sozialeko elkarte eta erakundeek** aurkezturiko proiektuei laguntzea dute xede, **hauen helburua lankidetza- eta garapen-proiektuak bultzatzea baldin bada garapen-bidean dauden herrialdeetan.**

Laguntza-deialdi hau ahalbidetzen duten funtsak, bazkide laguntzaileen, Kutxa eta Kutxabank S.A.ko eta egungo enplegatuen eta Kutxa eta Kutxabank S.A.ko erretiratuen ekarpenetatik lortzen dira.

Urtean bildutako diru-kopurua Kutxa Fundazioak berdindu egiten du, eta horrela indartu egiten da bazkide laguntzaileen konpromisoa guztion ongizatearen eta gizarte-eraldaketaren alde.

ERAKUNDE ETA ENTITATEEI ESKATZEN ZAIZKIEN HELBURU ETA BETEKIZUNAK

Deialdi honen xedea diru-laguntzak ematea da lan solidario nabarmena egiten duten elkarte eta erakundeek proiektuei, betiere Lankidetzaren eta Garapenaren eremuan (aurrerantzean, **Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak: GGKEak**) Gipuzkoan.

GGKEek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Eratuta eta ondo inskribatuta egotea dagokien erregistro ofizialean, gutxienez deialdi honen data baino urtebete lehenagotik, eta beren zerga- eta lan-betebeharrak eguneraturik izatea.
- Beren egoitza Gipuzkoan izatea.
- Irabazi-asmorik gabeak izatea eta beti era altruistan jardutea.
- GGKE bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du, bere aurrekontuarekin eta dagozkio gikaritze-epeekin.

PROIEKTUEN BALDINTZAK ETA AURKEZPENA

Proiektuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Egikaritzeko epea 2020ko abenduaren 31a da.

- Lotura justifikatua aurkeztea lortu nahi diren helburuen, egingo diren ekintzen eta horiek lortzeko erabiliko diren baliabideen artean.

- Proiektua gauzatzean ez dadila inolako diskriminaziorik egon arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako arrazoiengatik, ezta jatorri nazional edo sozial, posizio ekonomiko, jaiotza edo beste edozein zirkunstantziarengatik ere.

- Zehatz-mehatz idatzita egon behar dute, nabarmen azalduz beraien indar-guneak, baita helburuak, bilaturiko emaitzak eta egikaritzeko beharrezko baliabideak ere. Horretarako, deialdi honekin batera dagoen formularioa bete behar da, honako dokumentazio hau erantsiz:

- Erakunde eskatzailearen Estatutuen kopia.
- Dagokion Erregistroan egindako inskribapenaren kopia.
- Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Erakundearen legezko ordezkariaren NANaren kopia.
- Eskatzen duen pertsonaren ahalordeen kopia edo, hala badagokio, erakunde eskatzailearen izenean jarduteko ahalmena ematen dion karguaren izendapenaren kopia.
- Kutxabankeko kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- Proiektuaren txostena.
- Proiektuko jardueren dagozkien aurrekontuak.
- Entitatearen ekintzen azken memoria

Deialdi honetara proiektuak aurkezteak esan nahi du Oinarriak onartzen direla, baita ebazpena ere, eta hau atzera bota ezina izango da.

Informazio eta dokumentazio guztiak indarrean egon behar du eskaera aurkezten den unean.

DOKUMENTAZIOA

Dokumentazioa elektronikoki bidaliko da horretarako Gipuzkoa Kutxa Solidarioaren webgunean (www.gipuzkoasolidarioa.info) kokaturik dagoen inprimaki edo formularioaren bidez.

Ez da eskabiderik onartuko ezarritako epetik kanpo.

PROIEKTUEN BALORAZIOA

Proiektuetan positiboki balioetsiko da:

- Giza eskubideen alde egitea, Jatorrizko Komunitatearen garrantzia agerian jarritz, bera baita proiektuen arduraduna eta sustatzaile-kidea, horretarako biztanleria onuradunaren erakunde komunitarioen oinarritzko parte-hartzea sustatuz eta komunitate onuradun guztia konprometiaraziz proiektua egikaritzen.
- Giza eskubideen defentsaren ildotik, aldi berean jatorrizko erkidegoen lehen hizkuntzaren begirunea jaso eta defendatzen dutenak, baita emakumeen ahalduntzea sustatzen duen genero-ikuspegia ere.

- Ingurumena errespetatzea bai helburuen planteamenduan eta bai horien inplementaziorako behar diren ekintzen eta bitarteko eta baliabideen planteamenduan.
 - Lortu nahi den eraldaketaren (eragin edo inpaktuaren) jarraipenerako adierazle xume eta neurgarriak izatea, proiektuen ebaluazioan horiek zehaztea eta proiektuetan gardentasuna sustatzea.
 - Erakundeen arteko osagarritasunetik planteatzen diren proiektuak, beraiei ikuspegi integrala emateko helburuaz, eta erakundeen arteko lankidetzak sustatuz.
 - Itzulkin edo erretornua jasotzea gure erkidegoan sentsibilizazio gisa, ekintza hezigarriak / dibulгатiboak bezalakoen bidez.
 - Ekonomikoki proiektu iraunkorrak izatea ekintza gauzatu ondoren, edo jarraitutasuna aurreikusita izatea.

Proiektuak horretarako sortu den **Lankidetzak eta Garapenerako Batzordeak** balioetsiko ditu.

Gehienez 20.000 € emango dira proiektuko eta erakundeko.

Guztira emango den diru-kopurua, Kutxa Fundazioak laguntza honetan ematen duen laguntza eta proiektuak jasotzen dituen beste laguntza osagarri batzuk baturik, ez da bere aurrekontu edo zenbateko osoa baino handiagoa izango. Halaber, aurrekontuan murrizketak egingo balira, Kutxa Fundazioak eskaera berrikusiko luke, eta gerta liteke hasieran emandako zenbatekoa murriztea.

AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 1ean irekiko da eta urriaren 31n amaituko da.

EBAZPENA

Ebaluazio-batzordeak proiektuei buruzko ebazpena 2019ko azaroaren 29a baino lehen emango du.

GGKE eskatzaile bakoitzari 2019ko abenduaren 3a baino lehen emango zaio ebazpenaren berri.

LANKIDETZA-HITZARMENA

Kutxa Fundazioak lankidetzak-hitzarmena egingo du proiektuak lagunduko zaizkien erakundeetako bakoitzarekin, eta bertan proiektua gauzatzeko konpromisoa azpimarratuko da, eta proiektua aurrera eramango ez balitz edo ez balitz ezarritako baldintzetan egingo, orduan, jasotako laguntzak itzuli beharra ezarriko da.

Kutxa Fundazioak Kutxabankeko kontu batean ordainduko du laguntzaren zenbatekoa, aldi bakar batean, 2019. urtea bukatu baino lehen; erakunde eskatzaileak izan behar du kontu horren titularra.

JUSTIFIKAZIOA

Proiektuak justifikatzeko gehienez hilabeteko epea izango da amaitu eta gero, eta betiere 2021ko urtarrilaren 31 baino lehen; horretarako proposatuko den aplikazio informatikoaren bidez egin behar da proposatzen diren eremuak betez, eta hor sistematikoki jasoko da egindako jarduera-txostena, egiaztagiriak eta ordaindutako fakturen zerrenda.

GARRANTZITSUA

- Kutxa Fundazioak, Jubikutxak eta Denon Artean Denetik-ek (D.A.D.) dagozkion berrikuspenak egin ahal izango dituzte hautaturiko proiektuen egikaritzan.
- Kutxa Fundazioari, Jubikutxari eta Denon Artean Denetik-i (D.A.D.) dagokie eskakizunen eta oinarrien azken interpretazioa.
- Oinarrietakoren bat ez betetzea kanporatzerako arrazoia izan daiteke.
- Kutxa Fundazioaren, Jubikutxaren eta Denon Artean Denetik-en erabakia (D.A.D.) apelaezina izango da.
- Aurkezteak Oinarriak onartzen direla esan nahi du.